

**VII. ATALA  
BESTE ZENBAIT****Bilboko Merkatariza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketa Ganbera Ofiziala****Laguntzen deialdiaren laburpena modalitate arrunta INT-ECOMM 2022 Programa. BDNS (Identif.): 632483.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/632483>)

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak ezagutzera ematen du merkataritza elektronikoaren bidez nazioartekotzea bultzatzeko planak garatzeko Int-eComm 2022 laguntzen deialdi publikoa. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen ditu laguntza horiek.

**Lehena. — Onuradunak**

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren lurralde-muga-pekko ETEak eta autonomoak, EJZ eroldaren 1. sekzioan alta hartuta daudenak (zerbitzuen sektoreko enpresak izan ezik).

**Bigarrena. — Xedea**

Laguntzak ematea merkataritza elektronikoaren bidez nazioartekotzea bultzatzeko planak garatzeko. Laguntzek bi fase sekuentzial eta progresibo dituzte: ETEei aholkularitza pertsonalizatua emateko fasea, kanpo-merkatu jakin batean merkataritza elektronikoko plan bat diseinatu dezaten (doakoa), eta ezarpen-fasea (%50ean diruz lagundua).

**Hirugarrena. — Deialdia**

Enpresek deialdiaren testu osoa eskura dezakete Bilboko Ganberaren egoitza elektronikoan. Baita ere kontsultatu dezakete <https://www.camarabilbao.com/autonomos-empresas/internacionalizacion/programa-int-ecomm/> webgunean.

Esteka horretan deskargatu ahal izango dituzte deialdia bera eta eskaera egiteko behar den dokumentazio guztia.

**Laugarrena. — Zenbatekoa.**

Deialdi honen kargura emango diren laguntza ekonomikoak 7.000 eurokoak izango dira. Enpresa bakoitzak gehienez 7.000 euroko aurrekontu hautagarria izango du, zeina enpresa onuradunak berak finantzatu beharko baitu aldez aurretik. EGEFek aurrekontu horren % 50a finantzatuko du, hortaz, enpresa bakoitzeko gehieneko laguntza 3.500 euro-koa izango da.

Laguntza hauek Int-eComm Programaren barruan sartzen dira, zeinak 12.290,00 euro-ko gehienezko exekuzio-aurrekontua baitu «Espainiako Eskualde Anitzeko 2014-2020 Programa Operatiboaren» esparruan, eta zeinak bere baitan hartzen baititu doako diagnostiko- eta jarraipen-zerbitzuak.

**Bosgarrena. — Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea goizeko 9:00etan irekiko da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun baliodun igarotzen direnean, eta zabalik egongo da 2022ko irailaren 8ko eguerdiko 14:00ak arte. Hala ere, baliteke epe hori laburtzea aurrekontua agortzen bada.

Bilbon, 2022ko ekainaren 8an.—Jarduneko Idazkari Nagusia, Mikel Arieta-Arauna-beña